

ERALDAKETARAKO HAUSNARKETA... ZER EGIN INDARKERIA MATXISTEN AURREAN?

*“Ba al dago ezer bortitzagoa gizateriaren erdiaren gorputz,
adimen, sentimen, desira nahiz ekoizpen eta ugaltze
gaitasunez jabetzen den sistema bat baino?”*

(Lily Muñoz)

Indarkeria hauen arrazoiak identifikatu

*«Patriarkatuak maskulinitatearen eta feminitatearen
artean eraikitako ezberdintasuna, askatasunaren eta
menpekotasunaren arteko diferentzia politikoa da»*

(Carole Pateman)

Emakumeenganako kontrola ezkututzen duten errotutako hainbat ideia zalantzan jar itzazu

Maitasun erromantikoa, kasu:

*“Maitasuna emakumeen opioa izan da, erlijioa jendartearena bezala.
Emakumeok maitatzen genuen bitartean gizonezkoek gobernatzen zuten”*

(Kate Millet)

Nahitaezko amatasuna:

*“Emakume guztiak ideiak sortzen dituzte, baina guztiak ez dute umerik
sortzen. Gizakia ez da fruta arbola bat uztagatik soilik lantzen dena”*

(Emilia Pardo Bazán)

Emakumeen ahotsak zalantzan jartzea:

Hainbat sektorek; juridikoak, komunikabideak... emakumeen testigantzak
zalantzan jarri ondoren, “nik sinesten dizut” lelopean egindako mobilizazio

eta ekintzek erakutsi dute jendartearen alde batentzat testigantza horiek sinesgarritasuna badutela.

Aztertu zure egunerokoa

*“Zapaltzailea ez litzateke hain indartsua izango
ez balu zapalduen artean konplizerik”*

(Simone de Beauvoir)

Kontuz neomatxismoarekin! Pertsona askok (gizonezkoak, baina baita emakumezkoak ere) berdintasunaren alde daudela diote, baina era askotako eragozpenak jartzen dituzte kausa feminista higitzeko. Horrelako esaldiak izan ohi dira: Jada berdina gara, indarkeria matxistako salaketa faltsuak daude, berdintasun legeek gizonezkoa diskriminatzen dute, emakumeak boterean daudenean okerrenak dira...

*“Lengoaia, hitza, boterearen beste forma bat gehiago da,
debekatua izan dugun horietako bat”*

(Victòria Sau)

Emakumeak ikusezin bihurtu gaituzte historian, komunikabideetan, kulturaren... gizonezkoak izaten dira beti protagonistak eta emakumeok bigarren maila batean zokoratuak izan ohi gara.

*“Ondo geratzen da lan-merkatuan berdintasunari
buruz hitz egitea eta ez planteatzea
etxeko komuna norik garbitzen duen”*

(Amaia Pérez Orozco)

Emakumea lanean txertatzeko aurrerapen handiak egin dira, baina ahaztu egiten da gizonezkoa etxeko lanetan eta zaintzan sartzea. Erantzunkidetasuna ezinbestekoa da ezberdintasunekin eta indarkeriekin bukatzeko.



Mobiliza zaituz. Indarkeria matxistarekin errotik amaitzeko estrategiak ezagut itzazu

“Ez dugu ugazabaren etxea ugazabaren erremintekin eraitsiko”
(Audre Lorde)

- Zure inguruan eraso sexistak ikusi edo ezagutzen badituzu, ekin!
- Indarkeria salatzeke manifestazioetan parte hartu.
- Feminizidioak salatzeke elkarretaratzeetara joan. Zure herrian/hirian emakume baten erailketaren ostean (24-48 ordotara) mugimendu feministak antolatutako salaketa ekitaldi bat egongo da.
- Erakundeei beraien ardurak betearaztea eskatzeko, indarkeria matxistari gabeko bizitza libre bermatzea, ekimenetan parte hartu.
- Gizonezkoa bazara, zure inguruan legitimatuak diren indarkeriez hausnartu (txantxa sexistak, esamesak, etab.) eta ekin horien kontra.
- Emakumea bazara joan autodefentsa feministako tailerretara.
- Feminismoa zer den informa zaituz eta gaintitu estereotipoak.
- Parte hartu! Ezagutu zure inguruko eragile sozial eta antolakunde feministek zer egiten duten indarkeria matxisten aurka.

Antolatzailea:



Babesleak:

